

## Osasun estaldura osoa eta itxaronaldirik gabe.

Osasuna funtsezkoa delako bizi-kalitate ona izateko, edozein arazoren aurrean ezinbestekoa da azkar diagnostikatzea eta tratatzea.

Seguros Bilbaok zure eskura jartzen du osasun aseguru-sorta zabal bat zu eta zure ingurukoak zaintzeko, osasun pribatuak eskaintzen dituen abantaila guztiekin: medikua eta osasun zentroa hautatzeko aukera, ospitaleratze eroso eta kalitatezkoak, eta dena itxaron-zerrendarik gabe.

**Produktu bat zure bizimodu eta beharren neurrira.**

Seguros Bilbaon profesional bat izango duzu ondoan zuri entzuteko prest, zure arazoetan inplikaturiko dena eta konponbide indibidualizatuak eskainiko dizkizuna.

Konfiantzazkoa eta konprometitua, **zure aholkulari pertsonala.**

 **Seguros Bilbao**

\*Folleto hau informatzailea da. Beraz, bakarrik izango dira baliozkoak polizan espresuki agertzen diren berme eta zerbitzuak.

Eredua: 20546

*osasuna*

**Zure familiaren osasun-kontuetan, segundo bakoitza baliotsua da.**

 **Seguros Bilbao**

## Osasun Laguntza



## Premium Itzulketa

### Hemen daukazu dena.

Premium Itzulketa modalitate eskusiboan, lehen mailako medikuntza pribatuaren abantaila guztiak izango dituzu munduko edozein profesional mediko eta ospitale baliatzeko, itzulketa portzentajerik handienarekin: %100eraino ospitaleratze gastuetan, eta %85eraino ospitaleaz kanpoko medikuntzan.

Zaindu zure osasuna, itxaronaldirik gabe, espezialitate mediko-kirurgiko guztiak eta ospitaleratzeak estalita, eta egon lasai jakinik medikuntzaren azken nobedadeak baliatu ahal izango dituzula, munduko profesional eta ospitale onenekin.

### Osasun pribatuaren abantailekin eta zure neurriko prezioarekin.

Zaindu zure osasuna itxaronaldirik gabe, eta espezialitate mediko-kirurgiko guztiak eta ospitaleratzeak bermatuta.

Aukeran dituzu gure Koadro Medikoko 20.000tik gora profesional medikoak eta gure ospitale hitzartuak. Zure ohiko ginekologoa edo zure seme-alaben pediatra ez badago gure Koadro Medikoa, jarrai dezakezu haiengana joaten eta guk fakturaren zenbatekoaren %80 itzuliko dizugu. Baita ere itzuliko dizugu farmaziako gastua, gure mediku batek medikamendu generiko bat agintzen badizu.

Kasu bietan, polizan aurreikusten den zenbatekora arte.

Behar duzun medikuntza pribatua, erabakitzen duzuna ordainduko duzularik aukeratzeko duzun ko-ordainketa motaren arabera.

## Itzulketa

### Koadro Medikoaren barruan ala kanpoan, zuk erabaki.

Koadro Mediko baten bidezko Osasun Arretaz gain, zuk nahi duzun medikua eta ospitalea aukeratu ahal izango dituzu modalitate honetan. Kasu horietan, ospitaleratze gastuen %90 itzultzen da, eta hitzartu gabeko ospitaleaz kanpoko laguntza medikoaren gastuen %80a.

Aseguru horrek orobat eskaintzen du eguneroko kalte-ordain bat osasun publikoan artatutako ospitaleratzeetarako.



### Abantaila gehiago zure osasunarentzat.

Osasun laguntza orokorraz gain, osasun aseguru-sorta honekin bermatuta izango dituzu hainbat zerbitzu eta tratamendu, lasaiago bizi zaitez.

#### Kirurgia estetiko eta zaintza pertsonaleko tratamenduak.

Prezio frankiziatu eta oso abantailatsuan eskaintzen dizkizugu ez osasun publikoak eta ez osasun-aseguru pribatuak normalean eskaintzen ez dituzten tratamenduak:

- kirurgia estetiko
- errefrakziozko laser kirurgia
- test genetikoak
- azterketa orokorrak
- kirol azterketak
- ama zelulen kontserbazioa

#### Hortzetako osasuna.

2.000 odontologo baino gehiago ditugu, beren zerbitzuak prezio lehiakorrean --askok dohainik-- eskaintzen dituztenak.

#### Telefono bidezko orientazio medikoko zerbitzua.

Zure zerbitzura egunean 24 orduz, urtean 365 egunez, gai mediko, psikologiko eta dietetikoei buruzko kontsultak egiteko.

#### Bideo-dei bidezko kontsulta medikoa.

Seguros Bilbao aplikazioaren bidez medikuarekin on-line komunikatzeko.

#### Bigarren iritzi medikoa.

Aukera izango duzu bigarren diagnostiko bat eskuratzeko gaixotasun larriren bat izanez gero edo ebaketa kasuetan, eta Estatuko zein nazioarteko zentro ospetsuen aholkularitza jasotzeko inolako kosturik gabe.